

1

Martxoaren 18a dugu gaur, larunbata, eta kafetegi ezin beteago batean eserita nago, Fort Lauderdaleko aireportuan, zain, denbora akabatzen, luxuzko itsasontzi batetik atera eta Chicagorako hegazkinera sartu bitarteko lau orduak noiz igaroko, bukatu berri dudan kazetaritza-lanean ikusi, entzun eta egin ditudan gauza guztien *collage* hipnotiko eta sensual bat osatzeko asmotan.

Sakarosazko hondartzak ikusi ditut, eta ur urdin argi-argia. Jantzi informal bat ikusi dut (prakak eta jaka), erabat gorria, eta kanpai-formako papar-hegalduna. Eguzki-kremaren usaina aditu dut, 9.600 kilo haragi beroren gainean ipintzen den eguzki-kremaren usaina. “Txo” deitu didate, hiru herrialde. Klase oneko 500 estatubatuar ikusi ditut Electric Slide-ren doinuan dantzan.

Ordenagailu bidez moldatuak ematen zuten ilunabarrak ikusi ditut, eta baita tropikoetako ilargia ere, limoi lizunki handi eta zintzilikari bat zirudiena eta ez nire betiko ilargi harritsu estatubatuarra.

Konga batean parte hartu dut (tarte oso labur batez).

Iruditu zait Peterren goiburu moduko bati jarraituz egin dudala enkargua. Ekialdeko Kostako modako aldizkari batek antzinako estiloko estatu-azoka batera bidali ninduen iaz, eta horren harira idatzi nuena gustatu zitzairen. Beraz, enkargu tropikal ezin erraxago hau eskaini didate, helburu edo ikuspegi zehatzik gabekoa hau ere. Haatik, oraingo honetan halako presio bat sumatzen dut: estatu-azokako gastuak, guztira, 27 dolar izan ziren, zori-jokoak albo batera utzita. Oraingo honetan, aldiz, *Harper's* aldizkariak 3.000 dolarretik gora xahutu du deskribapen sensual ziztrin bat

ikusi aurretik ere. Behin eta berriz esan didate (telefonoz, itsasotik lurrerako konexioan, pazientzia handiz): ez kezkatu. Esango nuke hein batean elezuriak direla aldizkarietako jende hauek. Bizipenez beteriko postal erraldoi bat baino ez omen dute nahi: zoaz, orraztu Karibe itsasoa zure estiloarekin, zatoz, azaldu zer ikusi duzun.

Itsasontzitar zuri mordoa ikusi dut. Arrain txikien sardak ikusi ditut, hegal distiratsuekin. Tupe bat ikusi dut, hamahiru urteko mutiko baten buruan. (Arrain distiratsuek gustuko zuten igerian ibiltzea gure itsasontziko kroskoaren eta kaiko porlanaren artean, aingura botatzen genuen aldiro). Jamaikako ipar-kostaldea ikusi dut. 145 katu ikusi eta usaindu ditut, Key Westeko (Florida) Ernest Hemingway egoitzan. Orain badakit zer alde dagoen bingo arruntaren eta Prize-O bingoaren artean, eta badakit zer gertatzen den bingoko sari nagusia “elurrez” betetzen denean. Mugitzeko *dolly* bat beharko luketen bideo-kamerak ikusi ditut; maleta fluoreszenteak ikusi ditut, eta eguzkitarako betaurreko fluoreszenteak eta sudurreko betaurreko fluoreszenteak, eta hogei marka ezberdinetako gomazko txankletak. Altzairuzko danborrak entzun ditut, molusku frijituak jan, eta emakume bat ikusi dut kristalezko igogailu baten barruan oka-jaurtigaiak botatzen. Hatza sabairantz altxatu dut, diskoteka-musikaren 2:4 erritmoarekin bat eginda, nahiz eta 1977an gorroto nuen hatza sabairantz altxatu eta musika horrekin berarekin dantza egitea

Ikasi dut egon badaudela hamaika urdin-ñabardura, urdin oso-oso argitik harago. Inoiz baino gehiago eta dotoreago jan dut, eta hala jan dut, hain justu, ur handitan “kulunkatzea” eta ur handitan “zabuka ibiltzea” bereizten ikasi dudan aste berean. Umoregile profesional bati entzun diot jendeari zera esaten, ironiarik gabe: “baina izan gaitezen serioak”. Emakume-jantzi fuksiak ikusi ditut, eta hilekoaren kolore arrosako kirol-jakak, eta berotzaile marroi eta moreak eta mokasin zuriak, galtzerdirik gabe. Blackjack karta-emaile profesional maitagarriak ikusi ditut, hain maitagarriak, ezen gogoa izaten baitzenuen haien mahaira korrika joan eta sos guztiak jo eta bertan xahutzeko. AEBko hiritar

heldu eta etxe onekoei entzun diet Bezeroen Arretarako Bulegoan galdetzen ea urpeko igeriketa egiteko derrigor busti behar zaren, ea plater-tiroa kanpoan egingo den, ea langileek itsasontzian bertan lo egiten duten eta ea zer ordutan den Gauerdiko Buffeta. Zehatz-mehatz dakit zer osagai-ezberdintasun dagoen Titiburu Irristakor eta Zilbor Bilotsua edarien artean. Badakit zer den Co-coLoco bat. Mila eta bostehundik gora irribarre profesional eskaini dizkirate, astebetean. Azala erre eta ondoren erori egin zait, bi bider. Plater-tiroa egin dut, itsasoan. Nahikoa al da? Bere garaian ez zirudien nahikoa zenik. Tropikoaz hegoaldeko zeruaren zama oihaltso osoa sentitu dut. Ikarak harturik jauzi egin dut, dozena bat aldiz, itsasontziaren klaxon suntsitzailearekin bat, jainkoen puzkerraren modukoa baita. Mah-jongaren oinarritzko printzipioak barneratu ditut, bi egun iraun zuen bridge-txapelketa baten puska bat ikusi dut, esmokina jantzita salbamendu-jaka bat lotzen ikasi dut, eta xakean galdu dut bederatzi urteko neskato baten aurka.

(Egia esatera, gehiago zen *platerari* tiro egitea, itsasoan).

Merke-zurrean aritu naiz, zirtzilerien prezioa negoziatzen, gaizki elikatutako saltzaile haurrekin. Karibeko itsas bidaldi batean 3.000 dolarretik gora xahutzeko argudio eta aitzakia posible guztiak ezagutzen ditut orain. Mihiari kosk eginda, ezetz esan diot benetako jamaikar batek eskainitako benetako belar jamaikarrari.

Ikusi dut, behin, goialdeko bizkar bateko barandatik begira, behe-behean eta itsasontziaren atzeko kroskoaren inguruan, eskuinaldean, mailu-arrain baten hegala bereizgarria zirudiena, itsasontziaren istriborreko turbinak sortutako ubera niagararra-rekin nahas-mahasean.

Igogailu-musika reggaea entzun dut (eta ezinezkoa zait deskribatzea). Jakin dut zer den norbere komunaren beldur izatea. Itsasontziaren kulunkarekin mugitzen ikasi dut, eta orain ahaztu nahi nuke. Kabiarrak dastatu dut, eta bat nator nire ondoan eserita zegoen umetxoaren iritziarekin: nazkagarria zen.

Orain ulertzen dut zer esan nahi duen “duty free” esapideak.

Orain badakit zenbatekoa den bidaldi-itsasontzi baten gehienezko abiadura, korapilotan¹. Barraskiloak jan ditut, eta ahatekia, eta Alaskako izokina mihiluarekin labean egina, eta mazapanezko pelikano bat, eta tortilla bat, ustez trufa etruskoaren hondarrekin egina. Jendeari entzun diot esaten, hama-ketan etzanda eta serio-serio, okerreza ez dela beroa, baizik eta hezetasuna. Mainatu egin naute: buru-belarri, profesionalki eta aurrez hitz emana zidaten bezala. Aldarte ilunarekin ikusi ditut diren eta ez diren eritema, keratinoi, pre-melanoma, eguzki-orezta, ekzema, garatxo, papula-itxurako kiste, tripatzar, izter-zelulitis, barize, kolageno- eta silikona-inplante, tindagai eskas eta ile-landatze ustel guztiak; alegia, ia-ia biluzik ikusi dut ia-ia biluzik ikusi nahi ez nuen pertsona mordo bat. Pubertaroaz geroztik ez naiz hain gogogabetuta sentitu, eta hiru Mead koaderno bete ditut ia osorik, neure buruari azaltzeko ea Haien kontua zen ala soilik Neurea. Akaso bizitza oso bat iraungo duen herra bat sortu eta elikatu dut itsasontziko hotelaren arduradunaren aldera (Dermatis zuen abizena, baina Dermatitis jauna bataiatu dut, eta horrela izendatuko dut hemendik aurrera²). Nire mahaiko zerbitzariari, aldiz, errespetu ia erreberentziazko bat zor diot, eta sutsuki maitemindu naiz nire logela-zerbitzariarekin, alegia, 10. bizkarreko ababor aldeko korridoreko nire puskaz arduratzen zen Petrarekin; pikorren eta bekain sarrien Petra hori, erizainena bezalako arropa zuri eta almidoitua soinean, komun-zuloak garbitzeko zerabilen

¹ (hala ere, sekula ez zitzaidan oso argi geratu zer demontre den korapilo bat).

² Iruditu ei zitzaion ikerketa-kazetari bat nintzela, eta horrexegatik ez zidan utzi sukaldeak, zubia, langileen eremuak edo beste ezer ikusten, eta ez zidan baimenik eman langilerik elkarrizketatzeko, grabagailurik gabe egitea eskaini nion arren. Gainera, eguzkitako betaurrekoak eramaten zituena ontzi barruan egon arren, eta sorbaldakoak, eta berarekin hitzordua lotu ahal izateko Rendez-Vous tabernako karaoke-finalerdietara huts egin nuen hartan, zain eduki ninduen bere bulegoko paretari begira, berak telefonoz hitz egiten zuen bitartean, luzaroan eta grezieraz. Labur esanda: munduko desgrazia oro opa diot.

desinfektatzaile norvegiarraren zedro-lurrina zeriola, nire gela garbitzen zuen egunean hamar aldiz gutxienez, eta, hala ere, ez nuen sekula lanean harrapatu: xarma magiko eta iraunkorreko izaki bat, ondo merezia zuen postal bat, oso-osorik berari eskainia.

2

Zehatzagoak izate aldera: 1995eko martxoaren 11tik 18ra, nik neuk, borondatez eta diru-truk, zazpi gaueko bidaldi karibear bat (7GBK) pairatu nuen *Zenith* itsasontzian³, alegia, Celebrity Itsas Bidaldiak konpainiaren 47.255 tonako ontzi batean: gaur egun Hego Floridatik ateratzen diren itsas bidaldien hogeitakoko bat da⁴. Itsas bidaldien negozioaz orain dakidana kontuan iza-

³ Bromazaleak derrigor birbataiatuko du ontzia, bere kolkorako besterik ez bada ere, Celebrityko esku-orrian *Zenith* izen mozoloa irakurri bezain laster, eta horren ordez *Nadir* izendatuko du; beraz, barkatuko didazue, baina birbataioa bera ez da itsasontziaren aurkako eraso bat.

⁴ Badira itsas bidaldi gehiago ere, besteak beste Windstar, Silversea, Tall Ship Adventures eta Windjammer Barefoot, baina Karibeko bidaldi horiek ikaragarri esnobak dira, eta txikiagoak. Aipatu ditudan hogeitaka konpainia horiek “mega-itsasontziak” dauzkate, alegia, igeri egiten duten ezkon-pastelak, lau zifra bidaia-iragarkietan eta banku-egoitza baten neurriko motor-helizeekin. Hego Floridatik ateratzen dira Commodore, Costa, Majesty, Regal, Dolphin, Princess, Royal Caribbean eta gure Celebrity maitea. Badira, era berean, Renaissance, Royal Cruise Line, Holland, Holland America, Cunard, Cunard Crown eta Cunard Royal Viking. Eta Norwegian Cruise Line, eta Crystal, eta Regency Cruises. Badago, gero, itsas bidaldien negozioko aukera merkea, Carnival, zeinari “Karniboro” izengoitia ipini baitiote beste itsasontzi-lineek. Ez dakit zer lineatakoa ote zen *The Love Boat* telesailko *Pacific Princess* itsasontzia (areago, izango zen Kaliforniatik Hawaii-rako bidaia egiten duten horietako bat, nahiz eta, oroitzen naizenez, toki pila batera joaten ziren), baina, orain, Princess konpainiak erosi du izena, eta beren telebista-iragarkietan Gavin MacLeod gajoaren irudiak erabiltzen dituzte, goitik behera apainduta. 7GBK bidaldietako mega-itsasontziak itsasontzi-mota berezi bat dira, destruktoreak bezala. Mega-linea guztiek dauzkate itsasontzi bat baino gehiago. Industria honek garai bateko transatlantiko aristokratikoetan du

nik, hala ontzia nola instalazioak punta-puntakoak ziren. Janaria itzela zen, zerbitzuak ez zeukan aitzakiarik, itsasontzitik kanpoko txangoetako eta itsasontzi barruko ekintzetako xehetasun txikiena ere arretaz zaindua zegoen, parte-hartzaileak ahalik eta gehien estimulatzeko asmotan. Itsasontzia hain zegoen garbi eta hain zen zuria, ezen ematen baitzuen egosi egin zutela. Mendebaldeko Karibeko itsasoak, zeruak bezalaxe, askotariko tonuak hartzen zituen, jaioberrientzako estalkien urdinetik urdin fluoreszentera arte. Umetokiko tenperatura berbera zegoen. Bazirudien eguzkia bera geure gozamenerako zegoela han. 1,2 langile zeuden 2 bidaiariko. Luxuzko itsas bidaldi bat zen.

Luxuzko 7GBKak beti-berdinak dira, nahiz eta helburu-taldearen arabera aldaketa txikiak egiten diren. Megalinea guztiak oinarrizko produktu bera eskaintzen dute. Produktu hori ez da zerbitzu bat, ezta zerbitzu-multzo bat ere. Ez da ondo pasatuko duzulako promesa (hala ere, berehala konturatzen zara bidaldiaren zuzendariak eta beraren manupeko langileek etengabe ziurtatzen diotela mundu guztiari mundu guztia ondo pasatzen ari dela). Sentipen baten modukoa da, areago. Dena dela, fidatzeko

sorburua, oparotasunaz gozatzea eta egiatan norabait bidaiatzea uztartzen zuten eskaintza haietan: besteak beste, *Titanic* eta *Normandie* itsasontziak dituzue. Gaur eguneko Karibeko itsas bidaldien merkatuak hainbat talde ditu jomuga: ezkongabeak, zaharrak, tematikoa, interes bereziren baten ingurukoa, enpresak, parranda, familia, merkatu orokorra, luxuzkoa, zentzugabeki luxuzkoa, irrigarriki luxuzkoa; honezkero eremu guztiak jorratzen dituzte ia denek, eta berebiziko lehia dago guztien bueltan (bekainak kiskaltzeko moduko gauzak aditu ditut *Carnival* eta *Princess* itsasontziei buruz, grabagailua itzalita). Mega-itsasontziak AEBn diseinatzen dira, Alemanian eraiki eta Liberiako hiriburuan, Monrovia, erregistratzen dira; eta, oro har, eskandinaviarrak eta greziarrak izaten dira itsasontzion jabe eta kudeatzaile. Kurioski, jende horiek menderatu izan dituzte itsasoko bidaiak ia-ia betidanik. Celebrity konpainia Chandris taldearena da; beraren hiru itsasontziek X handi bat daukate tximinietan, baina, egiatan, ez da X bat, ezpada grekerako *khi* letra, Chandris familiaren omenez: itsasontzien negozioan hain zahar eta boteretsua da Chandris familia, ezen Onassis punki bat iruditzen baitzitzaien, antza.

moduko produktu bat izaten da, eta honelako zerbait sentiarazi behar dizu: erlaxaziozko eta estimulaziozko nahaste bat, estresik gabeko gozamenaren eta turismo frenetikoaren artekoa, *mainatu* aditzak berekin dakarren “mirabekeria+etorkortasun” uztarketa berezi hori. Aditz hori han eta hemen agertzen da, zentzu positiboan, itsasontzi-linea handien esku-orrietan: “... inoiz mainatu ez zaituzten bezala”, “... mainatu zeure burua gure jacuzzi eta saunetan”, “geuk mainatuko zaitugu”, “mainatu zeure burua Bahametako haize leunetan”.

Gaur egungo estatubatuar helduek beste biztanleria-tarte jakin batekin lotu ohi dute *mainatu* aditza, eta, nire iritziz, ez da kasualitatea, eta masa-merkatuari bideratutako itsasontzi-linea handiak eta beren iragarkiak ederki baliatzen dira lotura horretaz. Jakinean errepikatzen eta azpimarratzen dute hitza.

3

Gertaera hura Chicagoko albistegietara iritsi zen. Ni neu luxuzko itsas bidaldira abiatu baino zenbait aste lehenago, hamasei urteko mutil batek jauzi egin zuen itsasontzi bateko goialdeko bizkarretik (uste dut Carnival edo Crystal konpainiako itsasontzi bat zela): bere buruaz beste egin zuen. Albistegien arabera, nerabazaroko zorigaiztoko maitemin baten ondorioa izan zen: itsasontzian sortutako amodio-istorio bat, gaizki amaitu zena. Nire ustez, beste zerbait egon behar zuen, albistegiek inolaz ere aipatuko ez zuten zerbait.

Masa-merkatuentzako luxuzko itsas bidaldietan badago zeozer tristea ezin jasan izaterainokoan. Ezin jasan izaterainokoan tris-teak diren gauza gehienekin gertatzen den bezala, sentipen hori sortzen duten arrazoiak oso konplexuak eta harrapatzeko zailak dira, baina ondorio argiak dituzte: *Nadirren* barruan (bereziki gaez, itsasontziko dibertimendu egituratua eta hitz lasaigarriak eta plazeraren iskanbila isiltzen zirenean), etsipenak hartzen ninduen. Hitz hori, etsipena, gehiegi erabiltzen da gaur egun, eta arrunta bihurtu da, baina hitz serio bat da, eta zentzu serioan erabiltzen dut nik. Niretzat, bi sentipenen batuketa adierazten du: heriotza-grina arraro bat gehi heriotzarekiko beldurraren tankera hartzen duen sentipen bat (nire txikitasun eta hutsalkeria propioaren kontzientzia izugarria). Jendeak izu-laborri edo larrimin deitzen duen horretatik gertu dagoen sentipen bat da. Baina ez da hori, xuxen. Hil nahi izatea da, sentipen jasanezin bati ihes egiteko, hots, txikia eta ahula eta berekoia naizela eta zalantzarik gabe guztiok hilko garela konturatzen naizen uneko sentipenari. Itsasontzitik behera jauzi egin nahi izatea da.

Pentsatzekoa da editoreak puska hau moztuko duela, baina aurrekari batzuen berri eman beharrean nago. Nik neuk, bidaldi honen aurretik itsasoan sekula egon gabea, beti lotu izan dut itsasoa izu-laborriarekin eta heriotzarekin. Haurtxoa nintzela, buruz ikasten nuen marrazoek eragindako sarraskien inguruko informazioa. Ez erasoen ingurukoa, baizik eta sarraskien ingurukoa. Albert Kloglerren sarraskia, Baker's Beach-en, Kalifornia, 1959an (marrazo zuri handia); AEBko *Indianapolis* itsasontziko buffet-jana, Filipinetan, 1945ean (mota askotako marrazoak, batez ere tigreak eta urdinak, agintarien arabera)⁵; marrazo-bakarrari-egotzitako-sarraski-handiaren-sorta, Matawan eta Spring lake inguruetan, New Jersey, 1916an (beste behin ere, zuri handi bat; oraingo honetan *Carcharias* motako bat harrapatu zuten Raritan Bay-en, New Jersey, eta giza gorpuzkiak aurkitu zituzten hesteen barruan (badakit zer gorputz-zati ziren, eta zeinenak)). Eskolan, hiru lan idatzi nituen Moby Dickeko "The Castaway" pasarteari buruz, hain zuzen, pasarte horretan Pip itsumutila itsasontzitik jausi eta zoratu egiten da ikusten duenean zer-nolako eremu neurrigabe eta hutsean ari den igerian. Irakasle naizen honetan, ikasleei beti agintzen diet Cranen "The Open Boat" narrazio lazarria irakurtzeko, eta neure onetik ateratzen naiz mukizuek esaten didatenean istorioa gatzgabea dela, edo abentura-ipuina patxadatsu baten modukoa: haiek ere senti dezaten nahi dut, neuk itsasoz pentsatzean beti sentitu izan dudana hezur-muine-rainoko beldur hori, sumatu dezaten itsasoa oinarritzko ezereza

⁵ Buruz ari naiz. Ez dut ezein iturri egiaztatzeko beharrik. Gai naiz, oraindik, *Indianapolisen* gertatutako eta dokumentatutako hildako guztien izenekin akordatzeko, eta batzuen kasuan, baita serie-zenbakiekin eta jaioterriekin gogoratzeko ere. (Ehunka gizon hil ziren, horietako 80, ustez, marrazoek akabatuta, 1945eko abuztuaren 7tik 10era; *Indianapolis* ontziak *Little Boy* bonba utzi berria zuen Tinian uhartean, ondoren Hiroshimara bidaltzeko: ironiazaleek apunta ezazue datua. *Jaws* (1975) filmak pasadizo osoa erakutsi zuen, Robert Shaw aktorea Quinten rolean ariturik, eta, aurreikusi dezakezuen, hamahiru urte nituenean film hori porno fetitxista hutsa zen niretzat).